



LEIRE MONTES GARATE ▶ TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA-KO ZUZENDARIA

«Lankideen animoengatik erabaki nuen kargua hartzea»

JARRAIPENA ▶ Joxemi Saizarrek hasitako bideari jarraitu nahi dio, «etengabe hobetzeko» nahiarekin

XEDEA ▶ Telebista izateko xedeari eutsi nahi dio HITZAK, eskualdeko komunikabide sarea osatzeko ▶ 2



Leire Montes. NOELIA LATABURU



Azken txanpan jai batzuk, hasteko prest besteak, eta giro aparta denetan

TOLOSALDEA ▶ Lizartzako eta Elduaingo jaiak azken txanpara iritsi dira. Ekitaldiz betetako asteburua pasatuta, etzi agurtuko dira. Alkizak eta Zizurkilek hartuko dute lekukoa. I.TERRADILLOS ▶ 4-5

LEITZA ▶

Ikusmin handia piztu du judo saioak

Zazpi judoek kirolaren ezaugarriak azaldu zituzten, igerilekuan ▶ 7



Erakustaldiaren une bat. J. A.

LEITZA ▶

Leitzako I. Pilota Txapelketaren lehen pilotakadak

Finalurreko faserako lehendabiziko bikoteen izenak erabakita daude ▶ 7



Ostiralean eta larunbatean jokatu zituzten lehen partidak. J. ASTIBIA

TOLOSA ▶

Helduek ikasteko aukera HHIn

Izen-ematea zabalik da egoitzan ▶ 3

LEIRE MONTES GARATE ▶ TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA-KO ZUZENDARIA

«Lankideek emandako animoengatik erabaki nuen kargua hartzea»

HITZAKo zuzendari berriak dio haien aldetik «babes handia» jaso duela; «etengabe hobetzen» joanez, lehen hasitako bideari jarraituko diola esan du

NOELIA LATABURU

Zuzendari berria du HITZAK irailaren 1az geroztik: Leire Montes, 26 urteko kazetari tolosarra. Orain arte Tolosako albisteak jorratu izan ditu egunkari honetan, baina erronka berriari aurre egiteko garaia du orain. «Lana ondo egiteko ilusioarekin» dagoela aitortu du, «arriskatu, saiatu eta hanka sartu gabe ezer lortzen ez» dela esanez.

Nola hartu zenuen zuzendari izatearen proposamena?

Sentimenduak nahastuta. Pozik alde batetik, orain arteko zuzendari Joxemi Saizarrek nigan konfiantza jarri zuela ikusi nuelako, eta bai berak baita enpresako zuzendaritzak ere ordura arte nik egindako lana begi onez ikusi zutelako. Baina, bestalde, errespetuz begiratzeko nion etengabe proposamenari, ardura handia zela banekielako. Azkenean, baiezkoa erantzun nuen, batik bat lankideek emandako animoengatik; babes handia eskaini didate uneoro, asko eskertzen diet.

Erronka berri honen aurrean, nola ikusten duzu zeure burua?

Lana ondo egiteko ilusioarekin nago. Gauza batzuk ez dira aldatu, baina beste askori lehen-dabiziko aldiz heldu beharko diet. Badakit ez dela erraza izango, baina arriskatu, saiatu eta hanka sartu gabe ez da



NOELIA LATABURU

ezer lortzen. Gainera, ez naiz bakarrik sentitzen. Iratxe Etxebeste lankidea dudalako alban, zuzendariorde lanetan. Orain arte Tolosako albisteak jorritzen jardun dugu biok, eta elkarlan horretan jarraitzeko aukera da hauxe. Berak kargu berriari baiezkoa emateak baldintzatu zuen nire erabakia.

Aurreko zuzendaritzaren bi-

detik jarraitzeko asmoa al duzu?

Proiektu hau sendotzeko gakoia izan da Joxemi Saizarrek egindako lana, hark erakutsitako jarrera, konpromisoarena. Lau urte hauetan asko ikasi dugu guztiok harengandik, eta aurrerantzean berak hasitako bidetik jarraitzea iruditzen zait egokiena. Etengabe hobetzen

joan behar dugula ahaztu gabe.

Eskualdeko euskarazko egunkaria sendotuta dago jada. Zer helburu ditu HITZAK aurrera begira?

Komunikabideek zeresan handia dugu euskararen normalizazioan, eta HITZAK bide horretan pausoak ematen jarraitu behar du etengabe, euskaraz

HELBURUAK

«Telebista katea izateko helburuari eutsi nahi dio HITZAK, eskualdeko komunikabide sarea osatzeko»

NORMALIZAZIOA

«Euskararen normalizazio prozesuan pausoak ematen jarraitu behar du etengabe HITZAK»

irakurri, informatu eta bizi gaitetzen. Horretarako, gero eta harpidedun gehiago lortzea dugu xede. Eskualdeko komunikabideen sarea osatzea ere gakoa izango da horretarako: zentzu horretan, pixkanaka-pixkanaka telebista katea izateko helburuari ere eutsi nahi dio HITZAK.

Harpidedunei eta irakurleei parte hartzeko aukera ematen die HITZAK bere webgunean. Hala izango al da aurrerantzean ere?

Oso garrantzitsua iruditzen zaigu irakurleei hitza ematea, eta horregatik haien parte-hartzea bermatzeko tresnak jarri nahi ditugu. Hemendik aurrera zenbait berrikuntza izango ditu webguneak: albisteetako erantzunen txokoa, bilaketa, agurrak bidaltzeko aukera... Denon artean egindako kalitateko produktua nahi dugu.

Lan berriari ekin diozu dagoeneko. Zer nolakoak izan dira lehen egunak zuzendari gisa?

Aldrebesak. Berria zen dena, eta lan berriari neurria hartzea kosta egiten da. Baina pixkanaka-pixkanaka joango gara ohitzen; hala espero dut, behinik behin.

iragarki laburrak ▶



San Frantzisko etorb. 47- beheha
TOLOSA
Tel.: 943 65 50 37
Fax: 943 65 09 44
e-mail: ennio@innoennio.com
www.innoennio.com

Aitzo. Ebe bifamiliar ederra salgai. Ikusteko modukoa. Bista ederrak.

Bidania. Eraikuntza nahiko berriko ebe bifamiliarra, oso egoera onean.

Errazkin (Nafarroa). Berritzeko dagoen borda salgai. 140 m²ko bi solairu eta 1.200 m²ko lursaila.

Ibarra. Euskalerrria kalearen hasieran ebea salgai. 4 logela, sukaldea, egongela eta bainugela.

Ibarra. Plaza inguruan garajea salgai.

Ibarra. San Inazio auzoan. 3 logela, sukalde-egongela eta bainugela.

Dena kanpoaldera, oso eguzkitsua. Estreinatzeko.

Ikaztegieta. Ebea abikia salgai. Lorategi eguzkitsuarekin.

Tolosa. Alde Zaharrean hainbat etxebizitza salgai 155.060 eurotik.

Tolosa. San Esteban auzoa. 3 logela, oso eguzkitsua. Dena kanpoaldera.

Berokuntzarekin.

Tolosa. Bentaundi. 105 m²ko ebe

polita salgai su baju eta guzti. Ikustekoa!

Tolosa. Berazubi. 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Guztiz berritua.

Tolosa. Amaro auzoan hainbat etxebizitza salgai igogailuarekin.

Aukera paregabeak!

Tolosa. Zezen Plazan. 87 m²ko etxebizitza berritzeko igogailuarekin.

Tolosa. Erdialdean. 130 m²ko etxebizitza salgai. 4 logela (bat bulego bezala egokitua). Estreinatzeko, guztiz berritua izan ondoren.

Tolosa. Foruen Etorbidean guztiz berritutako ebea. Ikusteko modukoa!

Tolosa. Geltokialdea. Eraikuntza berria. 2 logela, egongela, sukaldea, bi bainugela, 2 terraza eta 2 lorategi.

Behean: garajea, komuna eta txokoa.

Tolosa. Larramendi, bi logela,

egongela, sukaldea eta bainugela. Trasteleku ederra ganbaran.

Tolosa. Trinkete, 3 logela eta bi bainugela. Egongela ederra. Ezin hobeto!

Tolosa. Erdialdean. Guztiz berritutako etxebizitza salgai. 3 logela, sukaldea, egongela eta bainugela.

Igogailuarekin eta berokuntzarekin. 321.540 euro.

Tolosa. San Frantzisko ibilbidean pisu ederra. 4 logela, 2 bainugela. Kanpoaldera, altua, berokuntzarekin.

Garajea aukeran.

Tolosa. San Frantzisko ibilbidean 126 m²ko etxebizitza berritua, 4 logela, 2 bainugela. Kanpoaldera, altua.

Berokuntzarekin. Garajea aukeran.

Tolosa. Gernikako Arbola. 140 m²ko ebe paregabea salgai terraza eta

igogailuarekin.

Tolosa. Pablo Gorosabel. Taberna alokairuan.

Tolosa. Araba Etorbidea. Garajea alokairuan.

Txarama inguruan. 100 m²ko etxebizitza terrazarekin salgai.

Egongela su bajuarekin. Lur saila eta garajearekin. Oso egoera onean.

Villabona. Larrea. Eraikuntza berriko etxebizitza salgai. Eguzkitsua.

Villabona. Etxeondo. Pisu garajearekin. Pisu 3 logela eta bi bainugelarekin.

Villabona. Kale berria. 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela.

Bitizen jartzeko moduan. 216.365 euro.

Villabona. Kale berrian 30 m²ko garaje ibxia salmantan.

EUSKARA ▶

Aitzol udal euskaltegiko matrikula zabalik

Hilaren 20a bitartean zabalik egongo da Aitzol udal euskaltegiko matrikula epea ikasle ohi nahiz berrientzat. Izena emateko ordutegia 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara da. Zenbait taldetan ikasle kopurua mugatua denez, matrikula garaiz egitea komeni da.

HEZKUNTZA ▶

Samaniego ikastetxean kurtsoari hasiera

Etzi Samaniego ikastetxean kurtsoari hasiera emango diote, 09:00etatik 13:00etara. Tolosaldeko hainbat herritatik ikastetxera joaten diren autobusek ohiko zerbitzua egingo dute kurtsoan zehar.

KIROLAK ▶

Saskibalo taldean izena emateko

Tolosako saskibalo taldeak deialdia egiten die 1992 eta 1993 urteetan jaiotakoei taldean izena eman dezaten. Proba egin nahi dutenek bihar dute hitzordua, 17:00etan, Usabalen.

MUSIKA ▶

Musika Eskolan matrikula epea zabalik da

Eduardo Mocoroa musika eskolan matrikula egiteko epea zabalik egongo da etzi arte. Izena emateko ordutegia goizeko hamarretatik eguerdiko ordubatera da. Bestalde, bihar, hilak 7, eskolei hasiera emango zaieela adierazi dute arduradunek.

KIROLAK ▶

Oargiren irteera Picos de Europa

Irailaren 8tik 11ra Oargi mendi elkarteak irteera antolatu du Picos De Europa. Ostegun arratsaldean irten go dira Tolosatik Joan nahi duenak 637830380 telefonora deitu behar du.

HEZKUNTZA ▶

Helduei zuzendutako ikastaroak prest

Interesatuek aukera dute dagoeneko Tolosako Helduen Hezkuntzan matrikulazioa egiteko 2005-2006 ikasturterako

IRATXE ETXEBESTE

THH-EPA, Tolosako Helduen Hezkuntzak ikastaroak antolatu ditu, urtero legez, 2005-2006 ikasturterako; ikastetxe publiko horretan 18 urtetik gorakotzat antolatzen dira ikastaroak, eta doakoak dira denak.

DBH graduatua, 25 urtetik gorakotzako unibertsitate-rako sarrera, oinarriko eza-gueretan sakontzea, Lehen Hezkuntzako maila guztiak, irakurketa eta idazketa hastapenak, etorkinentzako gaztele-razko ikastaroak, hizkuntzak —euskara, ingelesa eta frantsesa, hain zuzen ere—, infor-matika hastapenak eta Inter-

net, egur taila, eskulanak eta joste lanak, arteari buruzko ikastaroak eta test psikoteknikoak dira, besteak beste. Eusko Jauriaritzak sustatzen duen ikastetxe horrek ikasturte berri-rako eskaintzen dituen ikastaroak.

Adinez nagusi den edonork har dezake parte bateko eta besteko ikastaroetan, baina horretarako izena eman behar da aurretik. Matrikula epea zabalik da dagoeneko, eta Tolosan ez ezik, Villabonan ere izango dute interesa dutenek ikastaro horietakoren batean aritzeko aukera: Tolosan, Igaralde kaleko 23 eta 25 zenbakietan Tolosako Helduen Hez-

kuntzak duen egoitzara joan zaitezke ikastaroetan izena emateko, edo 943 67 26 60 telefono zenbakira deitu. Villabonan, berriz, Errebote plazako egoitzara joan behar da izena ematera, eta bertako telefono zenbakia honakoa da: 943 69 03 12.

Aurrez aipatutako ikastaroetan izena ematen dutenek bestelako ekintza batzuk egiteko parada ere izango dute. Izan ere, hitzaldiak, txangoak, museotara irteerak... egingo dituzte ikasleek ikasturtean zehar, eta, horrez gain, eskola al-dizkaria egingo dute. Argibide gehiagorako: www.geocities.com/epatolosa.

GIZARTEA ▶

Harizperekin oporretara joateko aukera adinekoentzat

I. ETXEBESTE

Harizpe jubilatuen eta pentsiadunen elkarteak oporrak antolatu ditu Benidorm-era urriaren 22tik azaroaren 5era. Hango Fleming hotelen egongo dira izena ematen dutenak hamabost egunez, eta Harizpeko bazkide direnek 390 euro ordaindu beharko dituzte, eta bazkide ez direnek 5 euro gehiago; gela individuala nahi duenak, ordea, 188 euro gehiago ordaindu beharko ditu.

Izen-ematea zabalik da honetarako Harizpe elkartearen egoitzan. 100 euro ordaindu beharko dira izena ematera-koan aurrerapen gisa, eta gainontzekoa txartela jasotzerakoan ordaindu beharko da. Urriaren 10a da izena emateko azken eguna.

hilberriak ▶



Marije Golmaio Esnal



Malkoz bete dira behinolako gela desagertuak, euskara bihotzean, irri goxoa ezpainetan hartu gintuzun magalean, eta gugan utzitako hazia fruitu bihurtu da. Beti arte andereño Marije!

Ikastolako ikasleak

ZUMAIA, 2005eko irailaren 6a

Marije Golmaio Esnal

Ez nau izutzen negu hurbilak uda betezko beroan, badakidalako irauten duela orainak ere geroan.



ZUMAIKAKO **batasuna**

ZUMAIA, 2005eko irailaren 6a




Marije Golmaio Esnal



Begira izeko begira egunsentia, begira basoa, ilargia, begira olatuak... Bizitzak ez du etenik: bizi zara bizi garen artean.

Ilobak: Joseba eta Esti, Imanol eta Sara, Josu eta Ana, Mikel eta Aitzi

ZUMAIA, 2005eko irailaren 6a



Marije Golmaio Esnal



Pirineo gailurrak zein Itzurun ertza lotu ditun laguna, bizi poza gainezka. Borborka bihotzean, askatasun ametsa, hutsune hori nork bete ahal baleza!

Zumea Ikastolako zure lagunak

ZUMAIA, 2005eko irailaren 6a



Maria Jesus Golmaio Esnal

(Agustin Egiuren-en alarguna)



ATZO hil zen, Donostian, 67 urte zituela.

Seme-alabak: Maite eta Pako, Agustin eta Nuria, Ramon eta Isabel eta Iñigo eta Nerea; bilobak: Anuk, Amets, Ethan, Julen, Haritz eta Jule; anai-arrebak: Belen eta Manu eta Maite; ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaidetak.

Agur Marije. Maite zaitugu.

helbidea: Aita Mari 9, 2. ezkerria, Zumaia. oharra ▶ gorpua Zumaiaiko beltalagian dago. Azken agurra familiarrean egingo da.

ZUMAIA, 2005eko irailaren 6a

ALKIZA-ZIZURKIL ▶ JAIK

EGITARUA ▶

ZIZURKIL

Bihar

16:00. Haurren txupinazoa Atxulondo Kultur Etxetik.
17:30. Pirritx eta Porrotx, Joxe Arregi Plazan. Ondoren: merienda eta buruhandiak.
17:00. Futbol Txapelketa, Danena Futbol Taldearen zelaian.
20:00. Txupinazo nagusia, Hizkilipai blusaren eskutik Atxulondo Kultur Etxetik.
21:30. Koadriren afaria Joxe Arregi Plazan (Egarri tabernak eskainirik).
23:00. Mulambo Perkusio Taldea.

Irailak 8, osteguna

11:00. Haurrentzat parkea Joxe Arregi Plazan.
13:30. Marrazki lehiaketako sari banaketa. Lehiaketan parte hartu duten marrazkiak ikusgai egongo dira goizean zehar Joxe Arregi Plazan.
17:00. Buruhandiak.
18:00. Bike Trial erakusketa Aurrera Plazan Iker Lezeta eta Alberto Gomezekin, munduko txapeladunak.
20:10. Raices Norteñas, jota nafarrak Joxe Arregi Plazan.
24:00. Kontzertua: Sei Urte eta Zea Mays.

Irailak 9, ostirala

Arantzazuko Amaren eguna

11:30. Meza nagusia.
12:00. Sardinak eta Sagardo dastaketa Urkamendi Elkartearen eskutik.
12:30. Buruhandiak.
12:30. Jubilatuek antolatutako jolasak adin guztientzako: toka eta igela.
14:00. Jubilatuen bazkaria.
17:30. Asto karrera: hiru mozorro onenei sari bakarrak.
19:00. Erromeria: kalejira Villabona eta Zizurkilgo dantza taldeen eskutik. Ondoren, dantza taldeen emanaldia Joxe Arregi Plazan.
21:30. Erromeri afaria. Ondoren, Eresargi Tipi eta Bukalai Dantza Taldeko dantzarien emanaldia. Gero, Tapia eta Leturia.

Irailak 10, larunbata

11:00. Buruhandiak.
11:30. Lore lehiaketa Joxe Arregi Plazan. 11:15erako eraman beharko dira lehiaketan parte hartuko duten loreak Joxe Arregi Plazara.
12:00. Halterofilia erakusketa Joxe Arregi Plazan.
14:00. Herri bazkaria.
17:00. Blusen arteko Pentatloia.
19:30. Ardi txakurren erakusketa Iturralde Baserri inguruan.
23:30. Mozorro Gaua: DSO kale antzerkia, Markeliñe

taldearen eskutik Ubare Auzoko 1-5 bitarteko aparkalekuan. Ondoren: Disko Top Joxe Arregi Plazan.

Irailak 11, igandea

09:00. Diana, Loatzo musika eskolako txistulari taldearen eskutik.
11:00. Zizurkilgo V. Kros Herrikoa eta hamaiketakoa.
13:15. Errenteriako Landarbaso Abesbatzaren kontzertua Arantzazuko Amaren Elizan.
17:00. Buruhandiak.
18:00. Herri kirolak herritarren artean. Zaharrak eta Gazteen arteko norgehiagoka.
20:30. Huauchinango-k Mariachi Perla.
23:00. Nekin taldea.

ALKIZA

Irailak 8, osteguna

12:00. Meza nagusia festei hasiera emanez.
14:00. Jubilatuen bazkaria Otsamendi jatean.
16:00. Haur jolasak.
21:00. Barrikotea.
22:00. Alkizako web orriaren inaugurazioa frontoian.
23:00. Bertsolari jaialdia: Lizaso, Peñagarikano, Egaña, Lujanbio, Irazu eta Colina. Jaialdiaren ondoren, Epelde eta Larrañagarekin erromeria.

Irailak 9, ostirala

11:00. Meza nagusia. Ondoren, beteranoren arteko XIV. Pilota Txapelketaren finalak.
16:00. Pitxoi tiraketa Erniope elkarteak antolatutik, bazkide eta herritarrentzat.
17:00. Gorriti bere animaliekin. Ondoren, toka txapelketa herrikoa.
21:00. Herri afaria Ostatu jatean. Ondoren, erromeria Etxabe anaiekin.

Irailak 10, larunbata

10:30. Herriko umeentzako birrindulari lasterketa eta toka txapelketa.
18:00. Herri kirol saioa herriko gazteen artean, Ion Zabala zenaren oroimenez. Ondoren, sagardo dastaketa denentzat.
23:00. Herri kirol saioa aizkolariekin eta harrijasotzaileekin. Gero, kontzertua K.S., Kauta era Mendeku Itsua taldeekin.

Irailak 11, igandea

10:00. Meza nagusia.
10:15. Pilota partiduak: Gazteen Arteko XV. Txapelketako finalak.
17:30. Txirri, Mirri eta Txiribiton junior pailazoak. Gero, Ikaztegiak dantza taldea. Ondoren, Imuntzo eta Belokirekin erromeria.

ANOETA ▶

KZgunearen atea irekita gaurtik aurrera

Tutoreak bisita egingo du etzi, eta 'Erosi ezazu etxetik' mintegia emango du

I. GARCIA

Gaurtik aurrera KZguneak bere ohiko ordutegia berreskuratu du. Beraz, astearte, asteazken eta ostegunetan, 11:00etatik 13:00etara zabalik izango da teknologiko berrien zentroa. Bestalde, aste honetan tutorearen bisita izango da etzi, ostegunetan. 16:00etatik 20:00etara egongo da. Gainera, mintegia eskainiko du, 17:00etatik 19:00etara. *Etxetik eros ezazu* izeneko.

KZguneaz gain, Anoetako liburutegiak ere bere ohiko ordutegia izango du. Jakina denez, arratsaldetan izaten da irekita, 17:30etik 19:30era. Liburutegian Internet zerbitzua erabili nahi dutenek, berriz, 16:00etatik 19:30ak arte izango dute horretarako aukera.

BERASTEGI ▶

Yoga, taila eta eskulan ikastaroak jubilatuentzat

ERREDAKZIOA

Gaztainondo Jubilatuek Elkarteak ikasturte honetarako (2005-2006) zenbait ikastaro berri eskaintzeko asmoa du. Yoga, eskulanak eta taila dira, hain zuzen ere. Hauetako batean izena eman nahi duenak elkartera hurbildu behar du, eta bertan izena eman.

Jai giroak badu jarraipena

Alkizan eta Zizurkilen herriko festak izango dira datozen egunotan

IMANOL GARCIA

Egitarau oparoa izango da datozen egunotan Alkizako Amabirjinaren Jaiotzaren eta Zizurkilgo Arantzazuko Amaren jaietan. Adin guztietakoentzat prestatu dituzte antolatzaileek: herri kirolak, kontzertuak, haurrentzat eta jubilatuentzat ekitaldiak, barrikoteak... Eskualdeko beste zenbait herrietan festak amaitzen diren bitartean, jai giroan jarraitu nahi du-

tenek izango dute aukerarik parranda egiteko, bai Zizurkilen baita Alkizan ere.

Aipatzekoa da, bestalde, Alkizan larunbat gauean izango den kontzerturako autobusa antolatu dutela. Honako ibilbidea egingo du: Tolosa (Belate), Villabona (Olaederra), Irura, Anoeta eta Alkiza. Igoera ordutegiak 22:00etatik 24:00etara izango dira, eta jaitsiera orduak 04:00etatik 06:00etara. Zerbitzua dohainik izango da.



lazgo festetako asto lasterketaren irudi bat. GARAZI AZKUE

iragarki laburrak ▶

Kale Nagusia, 13
VILLABONA
 Tel.: 943 69 68 56
 mug.: 616 93 17 88



Andoain. 3 logelako etxebizitza berritua. Sukalde zabala. Oso eguzkitsua. Etxesagasti 943 69 68 56.

Lizartza. Aukera. 100 m2ko etxebizitza ederra. Kanpoaldera. 34m2ko garajea. Berria bezala. Etxesagasti 943 69 68 56.

Villabona. Etxebizitza erdialdean

guztiz berritua. Trastelekua. Ikuspegiak. Prezioa negoziatzeko. Etxesagasti. 943 69 68 56.

Villabona. Erdialdean. Berritasuna. Eraiki berria. Bi logela. Ezinhobea. Oso eguzkitsua. Oztoporik gabe. Trastelekua. Garajea aukeran. Etxesagasti. 943 69 68 56.

Villabona. Aukera. 2 logelako etxebizitza erdialdean. Berritzeko. Eraikin onean. 32.000.000 pezeta negoziagarriak. Etxesagasti. 943 69 68 56.

Zizurkil. Egongela, sukalde, 3 logela eta bainugela. Sartzeko. Etxeaurrea egoera onean. Etxesagasti. 943 69 68 56.

Zizurkil. Eraiki berria. 97 m2ko etxebizitza ederra. Ezinhobe. Trastelekua. Prezioa negoziatzeko. Etxesagasti. 943 69 68 56.

Eskaera handia dela eta, etxebizitza, bakarkako etxeak, baserriak, lursailak... behar dira Gipuzkoan. Etxesagasti. 943 69 68 56.

ELDUAIN-LIZARTZA ▶ JAIK



Elduainen herengun goizean egin zuten sardina jatean jende ugari elkartu zen. I.TERRADILLOS



Zikroa prestatzen aritu ziren goizean zehar. I.T.



Pilota partidak izan ziren bi herrietan. I.TERRADILLOS



Otsalar dantza taldeak eskaintako dantzaldiko une bat. I.TERRADILLOS

Azken txanpan sartu dira herriko jaiak

Jende ugari bildu da asteburuan Lizartzako eta Elduaingo jaietara; etzi izango dute bietan festen azken eguna

IÑIGO TERRADILLOS

Ekitaldiz beteriko egitaraua izan dute asteburuan Lizartzan eta Elduainen, eta bietan ere jaiak direla-eta festa giroa nagusi izan da.

Elduainen larunbat gaueko diskojaiaren ondoren, hamaitakoaekin hasi zuten igandea. Horrela, jende ugari elkartu zen plazan sagardo eta txakolinarekin batera egin zuten sardina jatean. Eguerdian partean pilotalekuan izan zen hurrengo hitzordua, bertan profesionalen arteko pilota partidak jokatu baitziren. Lehenengoan Antxiak eta Elolak 22-19 irabazi zuten Amarika eta Zabalak osatutako bikoteari; bigarrenean, berriz, Alustizak eta Altunak 22-14ko emaitzarekin irabazi zuten Ariznabarreta eta

Errandonearen aurka. Herritar ugari joan zen partidak ikustera eta giro polita sortu zen. Arratsaldean, gaztetxoentzako puzgarriak batetik, eta bestetik Berastegiko motozerrariaren erakustaldia izan zen ikusgai. Azken horiek txakurrak edo astoak bezalako irudiak eginez ikuskizun paregabea eskaini zuten. Gauean, Izer eta Alabieren musika emanaldiaz gozatzeko aukera izan zuten.

Lizartzan, larunbat gaueko kontzertuen ostean goizean goizetik ekin zieten jaiak, herriko Karobitxulo trikitilari taldeak goiz deia egin zuenean, hain zuzen. Eguerdian pilota partidak ikustera jende asko joan zen herriko pilotalekura. Ariztumuñok eta Gallurraldek 18-8 irabazi zuten Jaka eta Zubeldiari lehenengoan, eta bigarre-

nean Sukiak eta Arzallusek 22-15 egin zuten Olaetxearen eta Mendinuetaren aurka. Herriko dantzariak lanean ikusteko parada izan zen horiek amaitzean, eta ondoren zikiro jatea egin zuten 100 lagun inguruk.

Ederki jan ostean dantza soka ikusteko eta Ertxabe anaien doinuez gozatzeko aukera izan zuten herritarrek. Iluntzean herri kirolen txanda izan zen, sokatira, trontzalariak eta harri jasotzaileekin, besteak beste,

eta trikitixarako tartea ere izan zen probak amaitzean.

Azken txanpan sartu dira jaiak. Etzi, osteguna, agurtuko dira, Andra Mari egunarekin lehenak eta Helduen Egunarekin bigarrenak.

EGITARAUAK ▶

ELDUAIN

ETZI (ANDRA MARI EGUNA)
12:30. Meza Nagusia.
14:00. Herri bazkaria Kontzeju tabernan, musikaz alaiturik.
18:30. Aiako Harpaularien erakustaldia.
19:30. Gorriti eta bere animaliak.
20:00. XXXVI. Toka Txapelketa. Lehenengo saria, afaria.
24:00. Laiotz taldearekin emanaldia.

LIZARTZA

BIHAR
20:30. Kalejira Karobitxulo trikitilariekin.
ETZI HELDUEN EGUNA
10:00. Goiz deia Lizartzako Gaiteroekin.
12:00. Poteoa eta hamaiketako Txirrita elkarteak.
14:30. Bazkaria txiste kontalariarekin Jose Mari jatetxean.

ABURUZA Eraikuntzak, S.A.

Kale Berria, 46 behea • Tel.: 943 69 02 97 • Fax: 943 69 00 52 • 20150 VILLABONA

ALEGIA ▶

Aralar Institutuan
ostegunean
hasiko da kurtsoa

Aralar Institututik jakinarazi dutenez, 2005-2006 ikasturtea ostegunean hasiko da. 10:00etatik 12:00etara luzatuko da lehen egun hori, eta garraioa ohi bezala ibiliko da. Gogoratu ere iraileko ordutegia goizez soilik izango dela, hau da, 08:00etatik 14:30era.

VILLABONA ▶

Tinta areto futbol
taldeak neskak
behar ditu

Villabonako Tinta areto futbol taldeak neskak behar ditu denboraldi berrirako taldea osatzeko. 17 urtetik gora izatea da baldintza bakarra eta taldean sartu nahi duenak bihar, asteazkena, 19:30etan du hitzordua. Olaederra kiroldegian. Informazio gehiago nahi izanez gero, 607 31 3744 telefono zenbakira deitu.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112))
Osasuna.

- ▶ Alegialdea. Osasun z.: 653212
 - ▶ Anoeta-Alkiza-Hernialde. Medikua: 65 23 39
 - ▶ Asteasu. Medikua: 692423
 - ▶ Baliarrain. Medikua: 889003
 - ▶ Berastegi-Elduain. Medikua: 683361
 - ▶ Bidegoian. Medikua: 681134
 - ▶ Ibarraldea. Osasun etxea: 672411
 - ▶ Ikaztegieta. Medikua: 653329
 - ▶ Irura. Osasun zentroa: 690720
 - ▶ Leitz. Osasun z.: 948 510800
 - ▶ Orendain. Medikua: 655595
 - ▶ Oresa. Medikua: 682228
 - ▶ Tolosa.
 - ▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
 - ▶ San Esteban: 006800
 - ▶ Gernikako arbola: 006900
 - ▶ Amaroško dispen.: 672637
 - ▶ Asunzion Klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdia)
 - ▶ DYA: 672536
 - ▶ Gurutze Gorria: 674888
 - ▶ Villabona. Anbulat.: 006970
 - ▶ Zizurkil. Aiztondo zerb: 693930
- Garraioak.**
- ▶ Renfe: 902 24 02 02
 - ▶ Donostiako autobusa: 361740
 - ▶ Tolosaldea bus: 650621
 - ▶ Leitzaran autob.: 948 221015
 - ▶ Taxia: 670420
 - ▶ Taxia (Leitz): 608 873016
- Besterik.**
- ▶ Ertzaintza: 538820
 - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
 - ▶ Tolargi: 650016
 - ▶ Iurrarmendi egoitza: 670325
 - ▶ Tolosa gasa: 675320

ZALDI LASTERKETAK ▶



Bi zaldiren arteko lehia, aurreko lasterketa batean, artxiboko irudian. OLAIA ESKITXABEL

Eskualdeko zaldunak punta-puntan zaldi lasterketetan

Jokatu diren zazpi proben ostean, Iñaki Izagirre eta Asier Mujika daude sailkapen orokorreko lehen bi postuetan

JULEN GOIKOETXEA

Zaldi lasterketen denboraldia ere ari da bere amaierara helitzen. Bi lasterketa soilik falta dira aurtengo amaitzeko: batetik, irailaren 18an Zizurkil izango dena eta, bestetik, hilaren 24an Deban jokatzekoa dena. Baina HIRZAK oporrak izan dituen bitartean, zaldi lasterketek ez dute atsedenik izan, eta abuztuan hiru lasterketa izan dira Aian, Elgoibarren eta Bidanian.

Aian, abuztuaren 7an jokatu zen denboraldiko bosgarren proba. Bertan, Asier Mujika zizurkildarra izan garaile Lur zaldiarekin. Mujika Josu Lizaso oriotarraren Cikuso eta Iñaki Izagirre asteasuarraren Bayo zaldien aurretik sailkatu zen. Aipatzekoa da lasterketan parte hartu zuten beste hiru zaldik erorikoan ondorioz proba bertan utzi behar izan zutela.

Zaldi lasterketen denboraldiko seigarren probak Elgoibarra eraman zituen parte-hartzaileak. Abuztuaren 24an, San Bartolome egunez, jokatu zen lasterketa, eta bertan lehiatu zirenen artean Garikoitz Lasa bidaniarra izan zen onena Orkatz zaldiarekin. Lasaren atzetik, Pedro Antonio Virgala andoindarraren Arwin zaldia

sailkatu zen bigarren postuan eta Josu Lizasoren Bayo, berriz, hirugarrenean. Ohorezko hiru postuen atarian geratu zen lehena Asier Mujika izan zen, eta bere atzetik sailkatu ziren Iñaki Izagirreren Cikuso eta Aitor Odriozolaren Sflim, bosgarren eta seigarren, hurrenez hurren.

Hurrengo lasterketak eskualdera ekarri zituen lehiakideak eta jarraitzaileak. Hain justu ere, Bidanian jokatu zen aurtengo zazpigarren proba abuztuaren 28an, eta nahiz eta ez irabazi, Garikoitz Lasa herriarrak lan on bat egin eta hirugarren postua bereganatu zuen. Bere aurretik, Asier Mujikak lortu zuen garaipena Lur zaldiarekin, eta bigarren postuan Iñaki Izagirre zizurkildarra sailkatu zen. Laugarren postuan, Lasaren atzetik, Pedro Jose Saizar oriotarra sailkatu zen Gorri zaldiarekin, eta bosgarren tokiarekin konformatu behar izan zuen Pedro Antonio Virgalak Arwinekin.

Izagirre, lider sailkapenean

Jokatu diren azken lasterketen ondoren, sailkapen orokorrean eskualdeko hiru zaldun daude lehen lau postuetan. Guztien buru, Iñaki Izagirre asteasu-

rra eta Cikuso zaldia daude 21 punturekin. Bigarren tokian ere bailarako parte-hartzaile bat dago. Asier Mujikak 19 puntu eskuratu ditu Lur zaldiarekin. Bi horien arteko lehiatik tartetxo batera Josu Lizaso oriotarra eta eskualdeko hirugarren ordezkaria, Garikoitz Lasa, daude. Biek 12na puntu dituzte eta geratzen diren bi lasterketetan gogor lehiatuko dira hirugarren postua lortzeko. Bosgarren tokian Pedro Antonio Virgala dago, aurreko biengandik puntu bakarrera. Seigarren postuan Pedro Jose Saizar oriotarra dago, 10 punturekin. Puntu kopuru berarekin aurkitzen da Aitor Odriozola oreretarra. Horien atzetik, zortzigarren dago Juanito Aginagale zumaiarra, 5 punturekin. Aginagalderekin berdinduta daude Xabier Gogorza ibartarra eta Millan Telleria alburtarra, bederatzi eta hamargarren postuetan, hain zuzen ere.

Eskualdeko beste hainbat ordezkari ere hartzen du parte zaldi lasterketetan. Horien artean daude Jose Manuel Iriarte leaburuarra, Angel Altuna bidaniarra eta Jon Lizaso asteasuarra. Guztiak ikusteko aukera izango da hilaren 18an Zizurkilgo lasterketan.

AMEZKETA ▶

Finalerdiak erabakita Joxean Tolosa txapelketan

Final-laurdenetako azken bi jardunaldiak jokatu ziren ostiral eta larunbat gauean

J. GOIKOETXEA

XVI. Joxean Tolosa pilota txapelketaren barruan, gero eta gutxiago falta da aurtengo edizioaren txapelkunak eza-gutzeko. Izan ere, ostiral eta larunbat gauean jokatu ziren final-laurdenetako azken bi jardunaldiak, eta era horretan erabakita geratu dira jada finalaurrekoak. Ohi bezala, hiru mailetako partidak izan ziren ikusgai bi egunetan, eta maila handia eskaini zuten kantxaratu ziren pilotariak.

Ostiral gauean, Albarado eta Iturrioz lehiatu ziren kadete mailan eta azken honentzat izan zen garaipena, 18 eta 4. Gazte mailako partidaren ere garaile izan zen Iraolak ez zion tanto askorik egiten utzi Mitxelenari, 18 eta 6 nagusitu baitzitzaion. Nagusien partida izan zen gaueko onena. Bertan, Jauregik 18 eta 16 irabazi zion Ebeberriari. Partida honetan lan asko egin zuten bi pilotariak baina aipatzekoa da Jauregik egin zuena. 11 eta 0 galtzen hasi arren, ez zuen amore eman eta azkenean garaipena eskuratu zuen.

Larunbatean ere beste hiru norgehiagoka ikusteko aukera izan zuten Amezketa-ara hurbildu zirenek. Betiko moduan, kadeteen arteko lehia izan zen jokatu zen lehena eta bertan Narbartek ezin izan zuen Saez de Asteasuren aurrean irabazi. Azken emaitza 18 eta 8koa izan zen. Bigarren partida gazteena izan zen, eta hemen Larrañagak finalaurrekoetarako txartela lortu zuen Otxandorenari 18 eta 13 irabazita. Azkenik, nagusietan, Baez I.ak Landiribar kanporatu zuen 18 eta 9koarekin partida irabazita.

Gauzak horrela, asteburu honetan jokatuko dituzte azkenaurko faseko partidak. Lehiatuko diren pilotariak ez dute garaipena merke salduko, eta hori horrela izanik, norgehiagoka ederrak ikusteko aukera izango dute Amezketa Larrunari pilotalekura hurbiltzen direnek.

LEITZA ▶ JUDO



Judoko borrokaldiak eskaini zituzten ikusleen harridurarako. J. ASTIBIA

Judo erakustaldiak ikusle mordoska bildu du

Igerilekuan judoaren ezaugarriak agertu eta erakusteko intentziora plazaratu dute

J. ASTIBIA

Larunbat arratsaldean eskaini zuten judo erakustaldia, Leitzako igerilekuko terrazan, eguraldi beroa izaki, han bertan eguzkitan zeudenentzat ez ezik, gainerakoentzat ere «berezia» izan zen emanaldia.

Terrazan borroka modu horretarako egokitutako lekuan, beroketa ariketak egin ondoren, ikuskizuna eskaintzera etorritako zazpi judoek, judoaren oinarrizko ezagutzako ezaugarriak nabarmenduz batera, bertan erabiltzen duten hizkuntza eta jokoaren beraren araudiaren berri eman zuten: arerioen arteko agurrak, erortzen ikastea, malgutasunaren garrantzia... «Azken finean, aurrean dagoena, arau batzuk errespetatuz baina, lurrera bota eta han 25 segundoz *edukitzea* da xedea», argitu zien ikusleei Jose Toro judokak, «edo, lurrean dagoe-

nak, zoruan bi kolpe jarrai eman arte», zehaztu, nonbait hori da-eta borrokaldia galdu duela adierazteko galtzaileak duen modua. Nabarmeneko izan zen, besteak beste Jolanda Soler judokak parte hartu izana,

Ekitaldiarekin bukatzeko, bertan zeuden umeekin jokorak egin zituzten, ikusleen interesa piztuz.

Aurtengo neguan, Leitzako kiroldegian judoko eskolak emateko asmoa izanzen luketela azaldu zuten, «ohiko kiroleratik desberdina den beste bat ikasteko aukera ere izan dadin», ziotenez, «zaletasunik agertzen bada», baldintza kontutan hartuz.

Ekitaldia ikusten 100 bat lagun izan ziren, gehienak umeak eta euren gurasoak izanik. Aitatu beharrekoa da, tamalez, kirolariek euren azalpen guztiak, gaztelera hutsez egin zituztela.



Jolanda Soler, —irudian, zutik dagoena—Europako txapeldun 3 aldiz eta Olinpiar Jokoetako brontzezko dominaren jabea zen, bat. J. A.

LEITZA ▶ PILOTA

Aurreneko pausoak eman dituzte Leitzako Pilota Txapelketan

Lehen taldekoek asteburuan jokatu dute eta final aurreko faserako aurreneko bikote sailkatuen izenak ezagun dira



Igdandean kadete, gazte eta helduen txanda izan zen. Irudian, Alduntzin, pilotari emanez. JAIONE ASTIBIA

JAIONE ASTIBIA

Asteburu honetan jokatu dituzte Leitzako Eskuz Binakako Lehen Txapelketako aurreneko partiduko eta dagoeneko, finalerdietarako sailkatuen erdiak zeintzu izanen diren ezagun da: Sagastibeltza-Garaio eta Altuna-Altuna, benjaminetan; Ijorra-Larraia eta Arozena-Unanua, alebinetan; infantiletan, Madariaga-Lana eta Aranburu-Zabaleta bikoteak; eta modu berean, kadeteen mailako Alustiza-Leunda eta Alduntzin-Teiletxea; Lansalot-Otxotorena eta Urrutia-Mitxelena, gazteetan; eta azkenik, helduen mailako Apeztekoa-Tabar eta Errea-Betelu bikoak.

Beste erdiek, hurrengo asteburuan ekinen diote txapelketari. Gazteenek, larunbatez dituzte partidukoak, 9:30ean hasita: maila bakoitzeko bina, sei partidu, 18 tantotara. Helduenak, berriz, ostiral iluntzean eta igande goizean ariko dira, 19:30 eta 9:30ean hurrenez-

EMAITZAK ▶

FINAL-LAURDENAK

Benjaminak. Gil-Sanchez 3, Sagastibeltza L.-Garaio 18; Sagastibeltza E.-Mendinueta 8, Altuna-Altuna 18.

Alebinak. Olano-Aznare 8, Ijorra-Larraia 18; Senosiain-Arizmendi 10, Arozena-Unanua 18.

Infantilak. Madariaga-Lana 18, Apeztekoa-Azelus 13; Aiestaran-Linzoain 7, Aranburu-Zabaleta 18.

Kadeteak. Alustiza-Leunda 22, Diez de Ultzurrun-Grajal 17; Alduntzin-Teiletxea 22, Ronpon-Mitxelena 21.

Gazteak. Lansalot-Otxotorena 22, Ollo-Soroa 17; Galartza-Etxeberria 13, Urrutia-Mitxelena 22.

Helduak. Armendaritz-Elizalde 18, Apeztekoa-Tabar 22; Onsalo-Zapirain 17, Errea-Betelu 22.

hurren; aldiok 3 partidu, maila banetakoak.

Antolatzaileak gustura ageri ziren, lehen jardunaldiaren ondoren: «Helduenetan batez ere, oso partidu burrukatuak atera dira eta horrek ikusgarritasuna ematen dio txapelketari. Alde horretatik gustura gauden», zioten. Bestalde, etxeko jokalarien lana ere goraiatu nahi izan zuten, maila guztietan, «eskolako ordezkariak lan ona egin du», esanez, ia maila guztietan hurrengo fase-rako txartela eskuratu baitute: «alebinetan lortu ez dugun arren, kadetetan aurrera igaro diren bi bikoteetan gauden». Aipatu zuten, ordea, «ikusle gutxitxo» joan zen Amazabal pilotalekura, horrela «zaletuei dei egiten diegu bertara joan daitezen, partidu polit askoak ikusteko aukera izaten baita», nabarmendu zuten. Aukera hortxe dago.

▶ TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Inkesta. Zer iruditzen zaizkizu Usabal kirolgune berriko tarifak: neurrikoak, garestiak, merkeak? **Eztabaida.** Oporrak bukatu zenuituzte, kontaiezaguzue zuen gogoko gertakizun bat, eta gustuko izan ez duzuen beste bat.

iragarki laburrak ▶

LANA

Arotza. Arotzeria metalikoko muntatzaile batek ikastuna behar du. Deitu: 668 70 09 79.

Sukaldaria. Asteburuetarako eta oporren ordezkapenak egiteko sukaldaria behar da.

Deitu 943 691 933ra.

SALGAI

Kotxea. Citroen Berlingo markako autoa salgai. 1998koa. Diesela. Egoera onean. Deitu 650 32 45 06ra.

Harpidedunei banatua ▶ 2005eko irailaren 6a, asteartea ▶ III. urtea

GAURKO EGURALDIA



AGENDA ▶

DEIALDIAK

Anoeta. KZgunea, gaurtik berriro zabalik, 11:00etatik 13:00etara. Etzi, *Exetik eros ezazu* mintegia, 17:00etatik 19:00etara.
Berastegi. Yoga, taila eta eskulan ikastaroak antolatu dituzte jubilatuentzat. Izena eman nahi duenak Jubilatutako Elkartera jo behar du.
Ibarra. Izaskun izena dutenen arteko bazkaria, hilaren 18an. Izena eman nahi duenak Izaskun izaskun izaskun jatebatera edo 943 67 59 27 telefono zenbakira deitu behar du (goizez), hilaren 15a baino lehen.
Lizartza. Hilaren 16an Pirritx eta Porroben ikuskizuna antolatu du Galtzaundi Euskara Taldeak. Sarrerak salgai, 5 euroren truke, egoiztan eta Udalean.
Tolosa. 1955. urtean jaio eta aurten 50 urte betetzen dituzten festa ari dira prestatzen. Azaroaren 12an izango da. Informazioa 650 69 35 40 (Santi Beloso), 630 90 80 45 (Joaquin Odrozola) eta 669 82 88 18 (Angel Garcia) telefono zenbakietan. Joatekoa denak 75 euro sartu behar ditu Kutxako kontu korronte honetan: 2101 0152 68 0125058396.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Ibarra. Ugarte, M.T. Euskal Herria, 46. 943 67 32 74
Leitza. Erbiti, O. Lizarraga, 7. 112.

IRRATIA

Txolarre (107.5 FM)
11:00. Tolosaldeko Ahotsa magazinaren hasiera (14:00ak arte): Joxe Landarekin eguraldia, albisteak, HITZaren gaurko alea, herrietako oharrak eta albisteak...
12:00. Kirolak: Usabalgo kirolgune berria, Herri Kirolak Joxeanjel Sarasola lankidearekin, Almitza Elkarte segalarik Suitzan: Garikoitz Etxeberria eta Andoni Zurriarain segalarik.
12:40. Agenda: kultur ekitaldi nagusiak Tolosaldean.
12:50. Inpernuko Poza, Euskal Herriko Trikitxa Elkarte antolatutako jardunaldien inguruko elkarrizketa, Agurtzane Aizpururekin.
13:00. *Izkutuko koloreak* irrati nobela.
13:00-14:00. Lehiaketa eta disko eskainiak.
19:00-21:00. Tolosaldeko Ahotsa saioaren errepikapena.
22:00-23:00. Street Noise musika saioa.

▶ HITZak ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Saskiratzeak sarean

TOLOSA ▶ Herriko saskibaloitzaileak biltzen dituen Tolosako Adiskideok Kirol Elkarteak webgune berria jarri du martxan: takesb.com

ERREDAKZIOA

Sarean sarean bada beste helbide berri bat bisitatzeko: www.takesb.com. Herriko saskibaloitzaileak biltzen dituen Tolosako Adiskideok Kirol Elkarteak (TAKE) martxan jarri du bere webgunea orain gutxi, «jendeari eta herriari gerturatu eta saskibaloia sustatzeko», elkarteak kideak azaldu dutenez. Hizkuntzarekiko apustua ere egin dute, guztia euskaraz jarri baitute. Haritz Arana taldekideak izan du diseinuaren ardura eta aurrerantzean beste jokalariek zein entrenatzaileak ere joango dira webgunea berria hornitzen. Atal ezberdinak ditu bisitatzeko: partaideen egutegia, talde ezberdinak (senior Aralar Kirolak, jubenila, kadetea, infantila A, infantila B) eta bertan dauden jokalariek, partiden kronikak, albisteak, inkestak... Webgunean publikitateak jasotzeko aukera ere eskaintzen dute. Beraz, orain, partiden berri ematen dituzten karteletan azaltzeaz gain, babesleek webgunean azaltzeko aukera izango dute. Elkartearen asmo nagusietanokoa saskibaloia sustatzea



TAKE-k egindako webgune berriaren azala. HITZA

da eta horretarako, webgunea martxan jarzteaz gain, gaztetxoak saskibaloira hurbiltzea beharrezkoa da. Horregatik, TAKE-k deialdia egin du 1992

eta 1993 urtean jaiotakoiei bihar, 17:00etan, Usabal kirolgunera agertzeko. Gaztetxo hauek izango dira infantil taldea osatuko duten jokalariek.

Edozein informazio eskaera egiteko interesatuek baliatu dezakete TAKE-k duen posta elektronikoa: takesb@takesb.com.

AGURRAK ▶



ZILARREZKO EZTEIAK
Margari Mayo eta Jesus Zumeta. Ondo pasatu zuten seme-alaba Josu, Leire eta familia guztiaren partetik.



URTE ASKOAN

Gaizka Ibarzabal. Gaur 6 urte. Zorionak eta muxu handi bat aitaboto eta amaboren partetik.

URTE ASKOAN

Ekiñe Uzkudun (Errezil). Zorionak eta muxu handi bat zure urtebetetzean birramona Maria eta Beldarrain sendiaren partetik.

URTE ASKOAN

Ekiñe Uzkudun (Errezil). Muxu potolo bat aila, ama, Oresako aiton-amona, osaba-izeba eta Oñatzen partetik.

URTE ASKOAN

Dolores Artola Artola (Lizartza). Gaur urteak. Bihotz-bihotzez seme-alaba, suhi-erriain eta biloben partetik.

HITZA, zorion agurren urtebetetzeak, urrezko ezteiak, tartea ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:

HITZaren egoitzara: Araba etorbidea, 5 behea - TOLOSA
Udaletxeko bulegoa - LEITZA

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker!